

Ostiralean, 22:00etan
Larunbatetan, 15:00etan

Antartikako onddoek Marteko kondizioetan biziraun dute ISSn



EXPOSE-E plataforma, ISSaren Columbus moduluan.

Urte eta erdiz Nazioarteko Espazio Estazioan (ISS) Marteren antzeko kondizioetan egon ondoren, Antartikako onddo batzuek bizirik irautea lortu dutela baieztatu dute. *Cryomyces antarcticus* eta *Cryomyces minteri* ziren onddo horiek, eta, jakinarazi dutenez, hemezortzi hilabete muturreko kondizioetan igaro ondoren, onik zituzten zelulen % 60.

Beste bizidunik ez dagoen lekuan bizirauteko gai dira onddo horiek, baina ikertzaileek jakin nahi zuten iraungo ote zuten Marteren antzeko kondizioetan ere. Horretarako, ISSra eraman zituzten, eta Columbus modulua kanpoaldean dagoen plataforma batean jarri zituzten. EXPOSE-E izena du plataforma horrek, eta astrobiologiako esperimenduak egiteko diseinatuta dago.

Onddoak CO₂-an aberatsa zen atmosferan egon dira, ia batere urik eta oxigenorik gabe eta 1.000 pascaleko presioan. Iragazki optikoak erabilia, Marteren pareko erradiazio ultramorea jaso zuten. Eta, hala ere, haien zelulen % 60k ondo zuten DNA, inolako aldaketarik gabe. Aurretik beste espezie batzuekin egindako ikerketetan ere, neurri batean muturreko kondizio horietan irauteko gai direla frogatu dute. [Astrobiology aldizkarian argitaratu dituzte esperimendu honen emaitzak](#); ikertzaileen esanean, esperimenduak datu oso baliagarriak eman ditu, Marten bizidunen arrastoak bilatzeko. ●

Eta Interneten:
<http://norteko.elhuyar.eus/>

**Zientzia
eta teknologia**
Euskadi Irratiaren
sintonian,
Guillermo Roaren
eskutik



NORTEKO FERROKARRILLA

